

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzua

Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko udalerriko HAPOaren egiturazko xedapen-aldaketari, ostatu-erabilera tertziarioari dagokionez (turismo erabilerarako etxebizitzak eta etxebizitza partikularretako erabilera turistikorako logelak)

Hauxe erabaki zuen Vitoria-Gasteizko Udalbatzak 2020ko otsailaren 21ean egindako ohiko osoko bilkuran:

“ — Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean ostatu-erabilera tertziarioa (turismo erabilerarako etxebizitzak eta etxebizitza partikularretako erabilera turistikorako logelak) arautzearekin lotuta egin nahi den egiturazko xedapen-aldaketari, udal zerbitzu teknikoek 2020ko urtarrilean landutako proiektuaren arabera.

— Behin betiko onspena izan arte etenda uztea Vitoria-Gasteizko udalerrri osoan hirigintza-lizentzien emateak eta obraren erantzukizunpeko adierazpen edo jarduera sailkatuaren aurretiko komunikazioen tramitazioa —erabilera turistikoko etxebizitzei eta etxebizitza partikularretan erabilera hori duten logelei dagokienez —, aldaketa hau landu eta idatzi arte.

— Plangintzarako Aholku Kontseiluari eskatzea plangintzaren aldaketa honi buruzko txostena egin dezan jendaurreko erakustaldiaren barruan.

— Erabaki honen berri ematea arloan sektore-eskumenak dituzten administrazio publikoei —Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila eta Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapen Saila— ezagutu eta txostena egin dezaten, baita dossierrean ageri diren interesdun guztiei ere.

— Udalerriko administrazio-batzar guztiei ematea erabaki honen berri, hogei eguneko epean txostena egin dezaten. Epe hori igarotzen delarik erantzunik edo ebazpenik jaso ez bada, jarraitu egingo da tramitazioarekin.

— URA, Uraren Euskal Agentziari txostena egiteko eskatzea, ekainaren 23ko urari buruzko 1/2006 Legearen 7.k) artikuluan xedatutako ondorioetarako.

— Aldaketaren inguruko dokumentazioa jendaurrean jartzea eta horren berri ematea ALHAOn eta probintzian zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, edozein entitate edo interesdunek dokumentazio hori aztertu eta egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkezterik izan dezan, hilabeteko epean”

Dosierra Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25—, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 3an

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE